



Tailerra

2012/10/17 - 2012/10/19

## **Tresnak::Tools{07 – Fabrikazio Digitala: “Errepikatu. Eraldatu. Parametrizatu”**

**Data:** Urriak 17,18 eta 19

**Tokia:** ARTELEKU

**Gonbidatuak:** Abelardo Gil-Fournier, Pello Mitxelena

**Parte-hartzaileen kopurua:** 14

**Izena emateko azken eguna:** Urriak 15. Bidali zure datu pertsonalak eta CV-a [info@arteleku.net](mailto:info@arteleku.net) helbidera.

Tresnak:: Tools jardunaldiek teknologia berrietara gerturatze bat proposatzen dute sarrera-saio batzuen bitartez, ondoren sorkuntza hori artearen eta sormenaren alorrean aplikatzeko helburuarekin. Jardunaldi hauetan, softwarearen eta hardwarearen hainbat tresnei buruzko sarrera laburrak egingo dira. Jardunaldi honetan objektu modularren – diseinu parametrikoren bidez garatuak - sormenean barneratuko gara.

Arkitekturaren eta diseinuaren eremuetan, sistema bat ezaugarritzen duten eraikuntzak eta egituraketak deskribatzen eta kuantifikatzen dituzte parametroek.

Baina diseinu parametrikoa kontzeptuarekin ulertu daiteke, baita ere, prozesuen deskripzio logikoak eranstea objektu, sistema eta egituren kontzeptualizazio eta fabrikazioari. Formaren galdera sortzailea prozesura eramatea, eta prozesuaren egituratze-elementuak lantzea: arauak, harremanak eta denbora, besteak beste.

Ikuspegi horrekin jokatzuz gero, diseinuak halako gaitasuna ematen die objektu fisikoei, non kodearen eta informazioaren edukitzea izan daitezkeen eta, ezustean, ezaugarri gainerakorrak, erlaziozkoak eta sistemikoak har ditzaketen.

Zentzu horretan, kodearekin egindako sorkuntza lanetik abiatuta sortutako formak eta sistemak aurkeztuko zaizkie tailer honetan artista, diseinatzaile eta arkitektoei. Hau dela eta, ariketa bezela proposatzen da objektuen sormena eta inprimatzea – diseinu parametrikokoaren paradigmatikaren bidez garatuak – sistema modular batean konfiguratu daitezkeena.

Parametroen bidez formen aldaketaren ikerketa bideratzeko Processing programaren erabiliko dugu. Ondoren, koste gutxiko reprop inprimagailuetan inprimatuko dira. Ez da beharrezkoa Processing ezagutzea, baino bai komenigarria.

Tailer honek artista – eskultoreak bereziki -, programatzaile, sortzaile, ingeniari eta fabrikazio digitalaren Ashley eskainia dago.

**Pello Mitxelenak** Arte Ederretako lizentziatura eskuratu zuen eskultura espezialitatean EHUko Arte Ederretako Fakultatean. Orain, bertako irakasle da eta Arte Graduko ikasgaiak ematen ditu eta Sorkuntza eta Diseinu Graduko proiektuen arduraduna da. Urtetan, artearen irakaskuntzari buruzko eztabaida talde batean parte hartu du, non, eskulturatik abiatuta, hainbat gai aztertu nahi ziren, hala nola, irudikapena eta alderdi teknikoa, sinbolizazioa eta forma edo diskurtsoa eta irudia.

**Abelardo Gil-Fournier** fisikaria da eta artista eta irakasle gisa lan egiten du programazio sortzailearen eta ekoizpen kolektiboaren esparruan. Teknologia libreen zabalkundean eta fabrikazio digital irekian jarduten den ultra-lab.net enpresako bazkide sortzailea da.

## **ORDUTEGIA**

### **Asteazkena 17**

17:00-19:00: Sarrera: Fabrikazio Digitala.

19:00 etan: "Hello World!: Processing" dokumentalaren proiektzioa

### **Osteguna 18**

10:00 -11:00 Ongietorria eta gosaria

11:00 -14:00 Aurkezpena eta tailerrari sarrera.

16:00 – 20:00: Lan Saioa

### **Ostirala 19**

10:00 – 14:00 Lan Saioa

16:00 – 20:00 Lan Saioa